

ACEBEDO

– ARABA / ÁLAVA –

Gaubea aldeko herritxo hau Gasteiztik 54,2 kilometrorra dago. Zelan iritsi Arabako hiriburutik Lehenengo, N-1 errepidea hartuko dugu, Burgos-Madrilerantz. 340. irteera hartuko dugu gero, Los Llanos industrialderantz, Langraiz Okan. A-2622 bidea hartuko dugu ondoren, Pobeserantz, eta, gero, A-2622 errepidea. Paul eta Gesaltza Añana herrietatik zehar, A-2625erako bidegurutzean Espejorantz jo, eta handik, 3 kilometro aurrerago, A-2622 hartuko dugu Uribarri Gaubearantz. Handik aurrera egingo dugu BU-V 5532 errepide-tik, San Millán de San Zadornil zehar, Valpuesta Burgos barruko enklabean barrena. Berriz Arabako lurretan, A-4334 hartu eta, Pinedo eta Basabe zeharkatu ostean, artez, Acebedora helduko gara.

Kontzeju horren toponimo erromantzeak inguruko landaredian du jatorria; handik hegora, kilometro gutxira dagoen Pinedo kontzejuaren toponimoaren kasu bera.

Valpuestako Kartularioek IX. mendetik XII. mendera arteko datuak dituzte jasota, eta bertako agirietan badira sasoi hartako zenbait herrixkaren aipuak. Araba mendebaldeko herritxo horiek Burgos aldeko Valpuestako Andre Mariaren monasteriotik hurbil zeuden. Orduko izkribuetan Acebedo izenarekin batera, Bachicabo, Valluerca eta Alcedo izenak ere badatoz.

Becerro de las Behetrías deritzon agiria Pedro I.a Gaztelako erregeak agindutako kartularioa da. XIV. mendean Gaztelako erreinuaren domeinu edo babespean zeuden ondareak daude jasota bertan. Gaztelako Merindadeen Kartulario horretan azaltzen dira Valpuesta inguruko herritxoak; hala nola, Gurendes, Quintanilla, Mioma, Acebedo, Uribarri Gaubea, Basabe eta Pinedo. Belasko, Salazar eta Bizkaiko jaunen mendean zeuden egon, eta ez Valpuestaren mendean.

Hala eta guztiz ere, XVI. mendearen amaieran, korrejidore-epaileek agindu eta gobernatzen zituzten Gaubeako lurak, Belasko leinuaren uztapean. Garai hartako oparotasuna nabarmena da San Joan Ebanjelistaren parrokiari. Gaur egun, uda aldean betetzen dira batez ere bertako etxe eta parajeak.

Este pequeño pueblo, ubicado en el Valle de Valdegovía, dista 54,2 km de Vitoria-Gasteiz, desde donde llegaremos por la N-1 en dirección Burgos-Madrid, hasta la salida 340 del polígono industrial de Los Llanos, en Nanclares de la Oca. Desde allí continuaremos por la carretera A-2622, hacia la travesía de Pobes, para continuar por la carretera A-2622. Esta vía nos lleva por Paúl y Salinas de Añana hasta un cruce en el que alcanzamos la A-2625, para atravesar Espejo y tomar, 3 km más adelante, la A-2622 en dirección a Villanueva de Valdegobía. Desde aquí seguimos y nos dirigimos por la carretera BU-V 5532, atravesando el enclave burgalés de Valpuesta por San Millán de San Zadornil, para coger la A-4334 y, tras pasar por los pueblos de Pinedo y Basabe, continuar recto hasta Acebedo-Gorostiaga.

El topónimo de esta localidad se engloba entre aquellos procedentes del romance que hacen referencia a la vegetación, como ocurre con su vecina localidad de Pinedo a pocos kilómetros al Sur.

Los Cartularios de Valpuesta recogen datos desde el siglo IX hasta el XII, y recopilan nombres de algunas de las aldeas ya existentes en época altomedieval, localizadas al oeste de la provincia alavesa, en la zona más próxima al monasterio burgalés de Santa María la Mayor de Valpuesta. En ellos aparece Acebedo junto a Bachicabo, Valluerca y Alcedo.

El *Becerro de las Behetrías* fue elaborado bajo mandato del rey Pedro I de Castilla, y consiste en un inventario de la Behetrías existentes en el territorio que abarcaba entonces el reino de Castilla en el siglo XIV. En él figuran aldeas de los alrededores de Valpuesta, como Gurendes, Quintanilla, Mioma, Acebedo, Villanueva de Valdegovía, Basabe o Pinedo, pertenecientes al señorío solariego de los Velasco, los Salazar o los Señores de Vizcaya, y no a Valpuesta.

No obstante, a finales del XVI son los Alcaldes Mayores quienes gobiernan y administran la justicia en este Valle de Valdegovía, ante la presión de los Velasco en la zona. Actualmente, esta localidad recoge su pasado esplendor en la iglesia parroquial de San Juan Evangelista. Su escasa población se ve aumentada en los meses de verano.

San Joan Ebanjelaria eliza / Iglesia de San Juan Evangelista

HERRIAREN HEGOALDEAN dago eliza hori, apur bat baztertuta, eta horri esker hobeto erreparatuko diogu eraikinaren egitura erromanikoari, gaur egun arte iraun baitu. Ez da altuera handiko eraikina, eta oso agerian du absidea. Inguruan ez du beste eraikinik. Nabekarrek eliza da, eta alboetan altuera gutxiagoko bi egitura erantsi zaizkio: elizpe itxia eta sakristia. Hiru atalak ere ur biko estalki beraren azpian.

Tenpluaren oinetan dagoen dorre karratuak bertikal-tasuna ematen dio eraikinari. Bi atal ditu. Gorengo estuagoan, mendebaldean, kanpaiak daude erdi-puntuko arkuetan. Gainerakoetan, ostera, bao karratuak baino ez daude. Lau ur edo isurialdeko teilatupean dago, eta, horren gainean, burdinazko kanpai-horma bat, kanpai bati helduz.

Hargin-lanaz egindako kanpoaldea du elizak, sendoa eta apaindura gutxikoa. Sarrerako portadan erdi-puntuko arku bat, moldura batez markatutako inpostarekin. Atelada berean, arkiboltaren beheko aldean, gurutze greko hankadun bat ageri da. Zuriz margotuta dago, eta hanka edo besoetan bihurtura txiki bat du, Erdi Aroko ordena militarren baten adierazgarri, seguruenik, edo, bestela, gurtzeko toki batera sartzen ari garela adierazteko funtzioa baino ez zeukan, badira-eta horrelako sinboloak beste eliza batzue-

ESTE EDIFICIO se encuentra a la derecha de la entrada sur del pueblo, algo desplazada, lo que nos permite observar mejor la estructura románica, tal como se ha conservado hasta nuestros días. Tiene poca altura y un ábside muy visible. Se halla completamente exenta de otros edificios. A esta iglesia de una sola nave se le adosan, en los laterales, dos cuerpos de menor altura bajo la misma cubierta a dos aguas. Se trata de un pequeño pórtico cerrado y de la sacristía.


La torre cuadrada a los pies del templo le proporciona verticalidad. Está estructurada en dos cuerpos. La parte superior, más estrecha, alberga las campanas en su lado oeste con arcos de medio punto, mientras que en el resto se abren pequeños vanos cuadrados. Se halla cubierta por un tejado a cuatro aguas, coronado por una espadaña de hierro con una campana.

Su exterior, de mampostería, es muy sólido y austero. La portada de acceso consiste en un arco de medio punto con las impostas marcadas por una moldura. En la misma portada, sobre la parte inferior de la arquivolta, encontramos una cruz griega patada pintada de color blanco, con una pequeña curvatura en los extremos de sus brazos, que bien podría relacionarse con algunas de las numerosas ór-




Kanpoaldea

Exterior



Oinplanoa / Planta

Hegoaldeko altxaera / Alzado sur



tan ere. Hemendik, elizpe txiki batean sartzen gara, eta, hortik, eliza barrura.

Teilatu-hegalean badira harburu batzuk, dekorazio bakoak eta gila formakoak, erabat geometrikoak eta erlieberik gabeak. Elizaren barruan, kanoi-ganga batek estaltzen du nabea; nabe osoa, burualdea izan ezik. Burualdean, erdi-puntuko arku baten atzean bereizita, ganga barroko bat altxatu zuten geroago. Margotuta dago guztiz, elementu arkitektonikoak ondo bereizita: marmol ilunaren antza eman diete erdiko arkuari, kupulako nerbioei, eta gangaren hasiera markatzen duten inposta lerroei.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI - Planoak: LGT

denes militares medievales, o simplemente como símbolo para recordar que se accede a un lugar de culto, ya que es muy común en estos edificios. A través de este acceso ingresamos en un pequeño pórtico cubierto por el que se llega al interior de la iglesia.

Bajo el alero de la cubierta aún se conservan algunos canecillos, sin decoración y con forma de quilla, muy geométricos y sin relieves. En su interior discurre una bóveda de cañón por toda la nave, excepto en la cabecera donde, tras un arco de medio punto que divide ambas partes, se construyó una cúpula barroca en época posterior. Se encuentra completamente pintado, diferenciando distintos elementos arquitectónicos, simulando mármol oscuro en el arco central, los nervios de la cúpula y las líneas de imposta que marcan el arranque de la bóveda.

Texto y fotos: JCE/MLAI - Planos: LGT

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 281-282.



Barrualdeko portada / Portada del interior